

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Hozta

Aurkibidea

Udalerria: Hozta

Sarrera



Hozta Nafarroa
Behereko udalerria da,
eta Oztibarre eskualdean
dago. Biduze ibaiaren
ibaiadar batek, Hoztako urak,
udalerria zeharkatzen du.
Herri hauek ditu mugakide:
iparraldetik, Ibarrola;
mendebaldetik Lekunberri;
ipar-ekialdetik, Donaixti-
Ibarre; ipar-mendebaldetik,
Duzunaritze-Sarasketa; eta,
hegoaldetik Behorlegi.
Herrian Jauregia izeneko Erdi
Aroko fortea dago.
Nekazaritza (artoa eta
barazkiak) eta abeltzaintza
(ardiak) dira bertako
ekonomiaren oinarriak.

- **Biztanleak:** 75
- **Euskaldunak:** %72,15

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Dominika Berrouet (1932-2017)



Hozta Xurrutan sortua, aita bertakoa zuen, ama aldiz Donaixti Pattateiakoa. Bi anai-arrebetarik lehena. Gurasoak laborantzan arituak, Dominikak segida hartu zuen. Graxiana Lascarayrekin ezkondu, eta bortz seme-alaba ukan zituzten (lau neska eta mutiko bat, zeinak segida hartua baituen). Hoztako auzapeza izan da 18 urtez. Badu Dominikak berezitasuna: taloak egiten oso trebea da, eta badu fama irabazia arlo horretan. Laboratzen aritzeaz gain, artzaintzan ere ibilia da.

Madalena Uhaldeborde (1930)



Madalena Uhaldeborde, sortzez Ruspil, Hozta Uberoan jaio zen. Gurasoak beti eri ezagutu izan ditu: ama tuberkulosiak joa, bost urte zituela zendu zitzaion. Aita, aldiz, Lehen Mundu Gerlatik gasak pozoindurik itzuli zen; birika bakarrarekin bizi zen, elbarriturik. Horrez gain, neba gaztea 28 urtetan hil zitzaion "hezurretako eritasunak" joa. Laborariak ziren gurasoak, eta laborari ere Madalena bera. Ezkondu nahi izan zuelarik, ahizpa zaharrena kontra agertu zitzaion, eta Iribarneko Pierre Uhaldebordekin ezkontzeko lehenik Bidarte eta gero Baionarat joan behar izan ziren. Ondotik, senarraren etxeko segida hartu zuten. Lau seme ukan zituzten. Gehiena goizegi sortu zen eta arreta handiz zaindu behar izan zuten hil ez zedin.

Jean Pierre Uhart (1944)



Hozta Uhartian sortua, ama bertakoa zuen, eta aita, berriz, Donaixtikoa. Gurasoak laborariak ziren, eta berak baserriaren segida hartu zuen, premua ez bazen ere: bigarrena baitzen. Ttipidanik abereekin lanean aritzea maite izan du. Hozta Haztokiko Irene Etxegoinekin ezkondu, eta bi seme ukan dituzte. Mahastiak, erlauntzak eta baratzea zituzten, baita behiak ere; behiak txirrindulaz eramaten ditu beti pentzez pentze.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com